## VITORIA-GASTEIZ

HERRITARREN SEGURTASUNA

**6377**

**Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa hausteagatik dosier zigortzaileak abiarazi direla jakinaraztea.**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko diren iragarkien bitartez gauzatuko dira jakinarazpenak, saiatu arren bestela burutzea ezinezkoa izan denean.

Halaber, lege beraren 61. artikulua aintzat harturik, jakinarazpena iragarki bidez egiteak eskubide edo legezko interesak kalte zitzakeela uste izan du organo eskudunak, eta, horrenbestez, egintzaren aipamen soila agertuko da iragarki honetan, interesdunek Herritarren Segurtasunaren Sailera agertzerik izan dezaten –Agirrelanda kalea, 8; Gasteiz; 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean–, bost laneguneko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, dena delako egintzaren eduki osoaren jakinaren gainean jartzeko, eta hala izan dela jasota gera dadin. Epea gainditu delarik, interesatuak ez du batere kontsultarik egin aipatutako lekuan, beraz, jakinarazpenaren ondorio berak izango ditu iragarki honek, ALHAOn argitaratzean den egunaren datarekin.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 12an.– Herritarren Segurtasunaren Saileko zuzendari nagusia, JAVIER SÁEZ LANAS.

| DOSIERRA | SALATUA | ARAU-HAUSTEA | ABIARAZTE EGUNA |
|---|---|---|---|
| 2012/SEGDRO00801 | IKER HINOJOSA VALIENTE | 8/7/12 | 21/9/12 |
| 2012/SEGDRO00852 | TAOUFIK BENALI | 2/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00853 | DAVID CIMAVILLA CASO | 3/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00855 | MOHAMED ES SAOUDY | 5/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00860 | YON GAMBIN MARTINEZ DE ALEGRIA | 10/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00864 | BETIANA LORENA PEREZ | 27/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00865 | JORGE ALTUNA CASTRO | 27/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00872 | JESUS ONDOÑO PARDO | 11/4/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00874 | KHALID JAKANTI | 12/4/12 | 16/10/12 |
| 2012/SEGDRO00879 | VICTOR MANUEL MANTECA CABAÑES | 14/4/12 | 16/10/12 |
| 2012/SEGDRO00881 | ABDERAHIM HAMJAN | 6/5/12 | 16/10/12 |
| 2012/SEGDRO00883 | BETIANA LORENA PEREZ | 13/6/12 | 16/10/12 |
| 2012/SEGDRO00892 | ALTAGRACIA RAMIREZ MORA DE GARRAUD | 8/7/12 | 17/10/12 |
| 2012/SEGDRO00898 | ABDELLATIF BOUKANOUN | 8/8/12 | 17/10/12 |
| 2012/SEGDRO00899 | ANGEL HOLGUERA HISADO | 26/7/12 | 17/10/12 |
| 2012/SEGDRO00900 | AITOR SAEZ NUÑEZ | 20/7/12 | 17/10/12 |

## VITORIA-GASTEIZ

SEGURIDAD CIUDADANA

**6377**

**Notificación de la incoación de expedientes sancionadores por infracción de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.**

Según el artículo 59.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, las notificaciones se harán por medio de anuncios en el Boletín Oficial de la Provincia cuando, intentada la notificación, no fuese posible practicarla.

Asimismo, y de conformidad con el artículo 61 del mismo texto legal, el órgano competente aprecia que la notificación por medio de anuncios puede lesionar derechos o intereses legítimos y, en consecuencia, este anuncio se limita a indicar someramente el contenido del acto para que, posteriormente, los interesados puedan comparecer en el Departamento de Seguridad Ciudadana, sito en la calle Aguirrelanda nº 8 de Vitoria-Gasteiz, en horario de 8:30h a 14h de lunes a viernes, en el plazo de cinco días hábiles a partir del día siguiente a esta publicación, para conocimiento del contenido íntegro del mencionado acto y constancia de tal conocimiento. Pasado el plazo sin que se haya producido consulta alguna por el interesado en el lugar indicado, este anuncio surtirá los efectos propios de la notificación y se tomará como fecha para ello la del anuncio de publicación en el BOTHA.

En Vitoria–Gasteiz, a 12 de noviembre de 2012.– El director General del Departamento de Seguridad Ciudadana, JAVIER SÁEZ LANAS.

| EXPEDIENTE | DENUNCIADO | INFRACCIÓN | INCOACIÓN |
|---|---|---|---|
| 2012/SEGDRO00801 | IKER HINOJOSA VALIENTE | 8/7/12 | 21/9/12 |
| 2012/SEGDRO00852 | TAOUFIK BENALI | 2/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00853 | DAVID CIMAVILLA CASO | 3/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00855 | MOHAMED ES SAOUDY | 5/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00860 | YON GAMBIN MARTINEZ DE ALEGRIA | 10/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00864 | BETIANA LORENA PEREZ | 27/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00865 | JORGE ALTUNA CASTRO | 27/3/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00872 | JESUS ONDOÑO PARDO | 11/4/12 | 15/10/12 |
| 2012/SEGDRO00874 | KHALID JAKANTI | 12/4/12 | 16/10/12 |
| 2012/SEGDRO00879 | VICTOR MANUEL MANTECA CABAÑES | 14/4/12 | 16/10/12 |
| 2012/SEGDRO00881 | ABDERAHIM HAMJAN | 6/5/12 | 16/10/12 |
| 2012/SEGDRO00883 | BETIANA LORENA PEREZ | 13/6/12 | 16/10/12 |
| 2012/SEGDRO00892 | ALTAGRACIA RAMIREZ MORA DE GARRAUD | 8/7/12 | 17/10/12 |
| 2012/SEGDRO00898 | ABDELLATIF BOUKANOUN | 8/8/12 | 17/10/12 |
| 2012/SEGDRO00899 | ANGEL HOLGUERA HISADO | 26/7/12 | 17/10/12 |
| 2012/SEGDRO00900 | AITOR SAEZ NUÑEZ | 20/7/12 | 17/10/12 |

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA

*Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketa*

**6374**

Gasteizko “Abetxuku mendebaldeko egoitzaldea” Barne Berrikuntzarako 14. Plan Bereziaren 3. aldakuntza behin betiko onestea.

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2012ko urriaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran:

Gaia: Gasteizko “Abetxuku mendebaldeko egoitzaldea” Barne Berrikuntzarako 14. Plan Bereziaren 3. aldakuntza behin betiko onestea. Biribide, SL.

ERABAKI-PROPOSAMENA

Gasteizko “Abetxuku mendebaldeko egoitzaldea” Barne Berrikuntzarako 14. Plan Bereziaren 3. xedapen aldakuntza aurkeztu zuen Biribide S.L. enpresak 2012ko urtarrilaren 16an.

## VITORIA-GASTEIZ

URBANISMO

*Planeamiento y Gestión Urbanística*

**6374**

Aprobación definitiva de la 3ª modificación del Plan Especial de Reforma Interior número 14 Abetxuko Residencial Oeste de Vitoria-Gasteiz.

En sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento el día 29 de octubre de 2012, se adoptó el siguiente acuerdo:

Asunto: Aprobación definitiva de la 3ª modificación del Plan Especial de Reforma Interior nº 14 Abetxuko Residencial Oeste de Vitoria-Gasteiz. Biribide, SL.

PROPUESTA DE ACUERDO

A la vista de la 3ª modificación puntual del Plan Especial de Reforma Interior nº 14 Abetxuko Residencial Oeste en Vitoria-Gasteiz presentada con fecha 16 de enero de 2012 por Biribide, SL.

Arabako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2005eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, behin betiko onetsi zuen Vitoria-Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorra aldatzeko dosierra, hain zuzen ere, lurrak birsailkatu eta birkalifikatzeko eta 14. BBPB "Abetxuku mendebaldeko egoitzaldea" sortzeko dena. Urbanizazio proiektuan eta haren gauzatzean foru erabakiaren laugarren eta bosgarren oinarrietan ezarritako iradokizunak izan beharko dira kontuan.

Gasteizko Udalbatzak 2006ko martxoaren 24an egindako ohiko bilkuran "Ehari Mendebaldeko Zabalgunea" 14. Barne Berrikuntzarako Plan Berezia behin betiko onestea erabaki zuen, eta eremu horretako urbanizazio proiektua 2008ko otsailaren 15ean onetsi zuen 2008ko otsailaren 15ean.

Gerora, Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren lehen aldakuntza egin zen, 2009ko martxoaren 27an behin betiko onetsi eta 2009ko maiatzaren 11ko ALHAOn (53. zk.) argitaratu zelarik. Bigarren aldakuntza berriz, 2010eko uztailaren 30ean onetsi zuen udalbatzak eta 2010eko abuztuaren 20ko ALHAOn argitaratu zen.

Aurkeztutako hirugarren aldakuntza honek RC-2.L-1 eta RC-2.L-2 lursailen arteko egoitzetarako eraikigarritasuna aldatzea du xede -biak jabe berarenak dira-, bi lursailek guztira duten eraikigarritasuna mantenduko delarik. Honek guztiak konponbide arkitektoniko egokiagoa izatea du oinarri.

Egin zen proiektuan jaso egin ziren proposamenaren xedea, ekimena, aurrekariak, beharraren justifikazioa, aldakuntzaren egokitasuna, bai eta indarrean dagoen plangintza nahiz proposatutako aldakuntzaren euskarri den agiri grafikoak ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko uztailaren 6an hartutako erabakiaren bidez, "Abetxuku mendebaldeko egoitzaldea" 14. Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren 3. xedapen aldakuntzaren proiektua onetsi eta aldakuntzari hasierako onespena eman zitzaion. Hogei egunez jarri zen jendaurrean, 2012ko uztailaren 30eko ALHAOn (87. zk.) eta 2012ko uztailaren 26ko El Correo y Diario de Noticias de Álava egunkarietan iragarkiak argitaratuta, bere interesak eragiten zituela uste zuenak egoki jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan.

Udaleko zerbitzu teknikoek aztertu egin dituzte aurkeztutako agiri guztiak eta ez dute behin betiko onespena emateko inolako eragozpenik ikusi; eremu horren konpentsazio proiektua aldatu egin behar da antolakuntza berrira egokitzeko.

Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzuak txosten juridikoa eman du 2012ko irailaren 5ean, 14. BBPBren hirugarren xedapen aldakuntzari behin betiko onespena emateko erabakiaren egokitasunaz.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen dira plan partzial eta berezien izapidetze eta onespena.

Aipatutako 2/2006 Legearen IV. kapituluaren seigarren atalak planeamenduaren aldakuntza eta berrikuspena arautzen du eta konkretuki 104. artikuluak xedatutakoaren arabera, hirigintza planen zehaztapenetan edozein aldakuntza egiteko plan mota bera erabili beharko da, baita zehaztapen horiek onesteko jarraitutako prozedura bera baliatua ere.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak –Tokiko Gobernua Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua– 127.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak du eskumena hiri antolakuntzarako tresnen proiektuak onesteko; behin-behineko edo behin betiko onespena ematea, berriz, Udalbatzari dagokio.

Resultando que el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava, en sesión de fecha 15 de noviembre de 2005 acordó la aprobación definitiva del expediente de modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz para la reclasificación, recalificación y creación de nuevo ámbito del PERI nº 14 Abetxuko Residencial Oeste, debiéndose tener en cuenta en el Proyecto de Urbanización y en su ejecución las observaciones establecidas en los fundamentos cuarto y quinto del acuerdo foral.

Resultando que el Pleno de este Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en sesión ordinaria celebrada con fecha 24 de marzo de 2006 acuerda la aprobación definitiva del citado Plan Especial de Reforma Interior nº 14 Abetxuko Residencial Oeste y que el Proyecto de Urbanización del citado ámbito fue aprobado por la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el 15 de febrero de 2008.

Resultando que posteriormente este Plan Especial de Reforma Interior sufre su primera modificación que es aprobada definitivamente con fecha 27 de marzo de 2009, publicándose en el BOTHA nº 53 de 11 de mayo de 2009, y una segunda modificación que se aprobó por el Pleno Municipal el 30 de julio de 2010 y se publicó en el BOTHA de 20 de agosto de 2010.

Resultando que la tercera modificación planteada tiene por objeto trasvasar la edificabilidad residencial entre las parcelas RC-2.L-1 y RC-2.L-2, que son del mismo propietario, manteniendo el total de la edificabilidad de ambas parcelas, todo ello con la justificación de que este reajuste consigue una mejor solución arquitectónica.

Resultando que en el proyecto elaborado se deja constancia del objeto, la iniciativa, los antecedentes, la justificación de la conveniencia y oportunidad de la modificación propuesta, así como del planeamiento vigente y la documentación gráfica correspondiente que sirve de soporte a la modificación propuesta.

Resultando que en virtud de acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 6 de julio de 2012 se procede a la aprobación del proyecto y a la aprobación inicial de la tercera modificación puntual del Plan Especial de Reforma Interior nº 14 Abetxuko Residencial Oeste de Vitoria-Gasteiz y se somete el expediente a información pública por el plazo de veinte días mediante anuncios en el BOTHA nº 87 de 30 de julio de 2012 y en los diarios El Correo y Diario de Noticias de Álava con fecha 26 de julio de 2012 para que cuantas personas se consideraran afectadas pudieran formular las alegaciones y observaciones pertinentes, sin que en el plazo habilitado a tal efecto se haya presentado alegación alguna.

Resultando que ha sido examinada por los Servicios Técnicos Municipales la documentación presentada, sin que se observe obstáculo alguno a su aprobación definitiva, debiendo proceder a la modificación del proyecto de compensación del mismo ámbito para adecuarlo a la nueva ordenación.

Resultando que se ha emitido informe jurídico con fecha 5 de septiembre de 2012 por el Servicio de Planeamiento y Gestión Urbanística del Departamento Municipal de Urbanismo sobre la procedencia de la aprobación definitiva de la tercera modificación del PERI nº 14 a la que se ha hecho referencia.

Considerando que el ámbito y contenido de los planes especiales se establece en los artículos 69 y siguientes de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Considerando que los artículos 95, 96 y 97 de la citada Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo regulan la tramitación y aprobación de planes parciales y especiales.

Considerando que la Sección Sexta del Capítulo IV de la misma Ley 2/2006 regula la modificación y revisión del planeamiento y concretamente el artículo 104 dispone que la modificación de las determinaciones de los planes urbanísticos deberán realizarse a través de la misma clase de plan y observando el mismo procedimiento seguido para la aprobación de dichas determinaciones.

Considerando que el artículo 127.1.c) de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local, adicionado por la Ley 57/2003 de Medidas para la modernización del Gobierno Local, atribuye a la Junta de Gobierno Local la aprobación de los proyectos de instrumentos de ordenación urbanística cuya aprobación definitiva o provisional corresponda al Pleno.

Udalbatzari dagokio planeamendu orokorrari hasierako onespena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako instrumentuen udal izapidetzeari amaiera ematen dion onespena ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i artikuluak –Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua– dioenaren arabera.

Proposatzen den antolamenduarekin bat etorriz –dosierreko hirigintza agirietan justifikaturik dago horren komenigarritasuna eta egokitasuna– eta aipatu diren araudiak aintzat harturik, Hirigintza Batzorde honek, Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak –abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua– 122.4.a) artikuluan aitortzen dizkion eskumenak baliaturik, eta Tokiko Gobernu Batzarrak hala proposaturik, erabaki proposamen hau egiten dio Udalbatzari:

ERABAKIA

1.- Behin betiko onestea “Abetxuku mendebaldeko egoitzaldea” 14. Berrikuntzarako Plan Bereziaren 3. aldakuntza. Biribide SL-k aurkeztu du 2012ko urtarrilaren 16an, eta elkarren ondoan dauden RC-2-L-1 eta RC-2-L-2 lursailen artean egoitzetarako eraikigarritasuna aldatzea du xede, bi lursailek guztira duten eraikigarritasuna berdin mantenduta. Hau guztia dosierrean jasotako proiektuarekin bat. Eremu horretako konpentsazio proiektua ere aldatu behar da, antolakuntza berrira egokitzeko.

2.- Erabaki hau argitaratzea, ALHAOn eta lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean iragarkiak jarriz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz.

3.- Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.”

Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 9an.– Alkate lehendakaria, JAVIER MAROTO ARANZABAL.

**ALDATUTAKO ARAUAK**

06. Aldakuntzaren deskribapena eta justifikazioa

…RC-2 L-1 eta RC-1 L-2 lursailen artean egoitzetarako eraikigarritasuna aldatzea proposatzen da. Hona hemen aldaketa hori:

| | EGUNGO EGOERA | | 3. XEDA. ALDAK. | |
|---|---|---|---|---|
| | ETX. KOP. | M² ETX. ER. | ETX. KOP. | M² ETX. ER. |
| RC-2 L-1 LURSAILA | 38 | 2.490,00 | 38 | 2.394,00 |
| RC-2 L-2 LURSAILA | 23 | 1.465,00 | 23 | 1.561,00 |
| **GUZTIRA** | **61** | **3.955,00** | **61** | **3.955,00** |

Considerando que el artículo 123.1.i) de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local, adicionado por la Ley 57/2003 de Medidas para la modernización del Gobierno Local, atribuye al Pleno la aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística.

De conformidad con el planeamiento propuesto, cuya conveniencia y oportunidad se justifican en los documentos urbanísticos que obran en el expediente, vista la regulación a la que se ha hecho referencia, esta Comisión de Urbanismo, en virtud de las competencias atribuidas en el artículo 122.4.a) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, adicionado por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de Medidas para la Modernización del Gobierno Local, a propuesta de la Junta de Gobierno Local, eleva al Pleno de la Corporación el siguiente

ACUERDO

1º- Aprobar definitivamente la 3ª modificación puntual del Plan Especial de Reforma Interior nº 14 Abetxuko Residencial Oeste en Vitoria-Gasteiz presentado por Biribide, SL con fecha 16 de enero de 2012, con objeto de trasvasar la edificabilidad residencial entre las parcelas colindantes RC-2.L-1 y RC-2.L-2, manteniendo el total de la edificabilidad de ambas parcelas, todo ello de conformidad con el proyecto que consta en el expediente, debiendo proceder a la modificación del proyecto de compensación del mismo ámbito para adecuarlo a la nueva ordenación.

2º.- Publicar el presente acuerdo en el BOTHA y en uno de los diarios de mayor difusión, en los términos previstos en el artículo 89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

3º.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra el mismo puede interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación o publicación.

Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2012.– El alcalde-presidente, JAVIER MAROTO ARANZABAL.

**NORMATIVA MODIFICADA**

06. Descripción y justificación de la modificación

… se propone el trasvase de edificabilidad residencial entre las parcelas RC-2 L-1 y RC-1 L-2, que se refleja en el cuadro siguiente:

| | S/ ESTADO ACTUAL | | S/ 3ª MOD. PUNTUAL | |
|---|---|---|---|---|
| | Nº VIV. | M² USO VIV. | Nº VIV. | M² USO VIV. |
| PARCELA RC-2 L-1 | 38 | 2.490,00 | 38 | 2.394,00 |
| PARCELA RC-2 L-2 | 23 | 1.465,00 | 23 | 1.561,00 |
| **TOTAL** | **61** | **3.955,00** | **61** | **3.955,00** |

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA

*Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketa*

**6375**

**Behin betiko onestea Gasteizko “Elorriaga-Arkauti” 18. sektoreko plan partzialaren lehen xedapen aldakuntza.**

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2012ko urriaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Gasteizko “Elorriaga-Arkauti” 18. sektoreko plan partzialaren lehen xedapen aldakuntza.

ERABAKI-PROPOSAMENA

Gasteizko Elorriaga-Arkauti 18. sektorearen Plan Partzialaren lehen xedapen-aldakuntza egiteko proiektua ikusi da; Sektoreko Jabeen Elkarteak aurkeztu zuen hori, 2012ko apirilaren 2an.

## VITORIA-GASTEIZ

URBANISMO

*Planeamiento y Gestión Urbanística*

**6375**

**Aprobación definitiva de la primera modificación puntual del Plan Parcial del Sector 18 Elorriaga-Arcaute en Vitoria-Gasteiz.**

En sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento el día 29 de octubre de 2012, se adoptó el siguiente acuerdo:

Asunto: Aprobación definitiva de la primera modificación puntual del Plan Parcial del Sector 18 Elorriaga-Arcaute en Vitoria-Gasteiz.

PROPUESTA DE ACUERDO

A la vista del proyecto de la primera modificación puntual del Plan Parcial del Sector nº 18 Elorriaga-Arcaute en Vitoria-Gasteiz presentado con fecha 2 de abril de 2012 por la Asociación de Propietarios de dicho Sector.